

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak “Nafarroako Turismoa-App ofiziala” aplikazioa, sakelako telefonoetarako turismo-bulegoa, sortu du

Aplikazio horrekin erakargarri turistikoak kokatu, erakargarri horien gaineko informazioa eskuratu eta zerbitzuak kontratatu daitezke

Lunes, 02 de septiembre de 2013

“Nafarroako Turismoa-App ofiziala” doako aplikazioa da eta sakelako telefonoan turismo-bulego txiki bat eramatearen modukoa da. Nafarroako erakargarri turistikoak kokatu, erakargarri horien gaineko informazio eskuratu eta zerbitzuak kontratatu daitezke; hori guztia zazpi hizkuntzatan: gaztelania, euskara, ingelesa, frantsesa, alemana, italiera eta nederlandera.

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako lehendakariorde Juan Luis Sanchez de Muniain Lacasiak prentsurrekoa eman du gaur, Turismo eta Merkataritzako zuzendari nagusi Carlos Ercerekin, aplikazio berria zertan den azaltzeko.

“Nafarroako Turismoa-App ofiziala” Nafarroan dauden turistek informazio praktikoa emateko dago pentsatua. Aplikazioak Nafarroako Turismo atarian dauden atal informatibo praktikoenak sakelako telefonoetan ikusteko moldatzen ditu. Gainera, gertuen dauden turismo-baliabideak geolokalizatzen ditu. Aplikazioa Android eta IOS (Apple) sistema eragileetan erabil daiteke eta debalde deskargatzeko dago Google Play eta Apple Store delakoetan.

Gainera, Nafarroako Turismoak gizarte-sareetan dauzkan kontuetara joateko estekak daude (Facebook, Twitter eta Youtube).

Aplikazio berriaren atalak eta aukerak

Turismo-aplikazio berriak hainbat atal dauzka. **Turismo-bilatzailean** bilaketak multzo hauen arabera egin daitezke: ‘jan eta lo egin’, ‘bisitatu eta gozatu’, ‘antolatu’ eta ‘informatu’. Gainera, aplikazioaren bitartez erreserbak egin daitezke online, Navarrabooking plataformari lotzen zaiolako. Plataforma hori Internet bidez erreserbak egiteko zentral bat da, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuak Ostalaritzako Enpresaburuen Elkartearekin elkarlanean abian jarritakoa.

Zer duzun hurbil atalean inguruko erakargarri turistikoak mapa batean jartzen ditu. Geolokalizazio hori zerranda gisa ere ikus daiteke eta baliabideak iragazi daitezke (jatetxeak, dendak, ostatuak, natura-inguruneak, erosketak, e.a.).

Non lo egin atalean inguruko ostatuak agertzen dira eta, aurrekoan

bezala, informazioa establezimendu-moten arabera ikus daiteke: hotelak, landetxeak, kanpinak, apartamentu turistikoak eta aterpeak.

Halaber, **Non jan** atalean inguruko jatetxeak mapan kokatu eta iragazi daitezke: jatetxeak, kafetegiak eta pintxo-tabernak.

Zer ikusi eta zer egin atalak inguruan bisitatu daitezkeen leku turistikoak geolokalizatzen ditu. Eta informazioa honako hauen arabera multzokatu daiteke: artea eta monumentuak, naturguneak, eta aisia eta museoak.

Zer erosi atala ere badago, gertuen dauden dendak kokatzeko. Dendak honako hauen arabera bilatu daitezke: bertako produktuak, artisautza eta antikuariok.

Agenda atalean hurrena izango diren ekitaldiak agertzen dira, baita urteko egutegia ere, zer jarduera dauden ikusteko. Egutegi hori, gainera, PDF artxibo moduan deskargatu daiteke.

Horrez gain, **jardueren eta esperientzien** gaineko atal bat ere badago, arlo hauetako proposamenak biltzen dituena: gastronomia, landa-turismoa, ekoturismoa, artea eta kultura, turismo aktiboa, Pirinioak, Donejakue bidea, Sanferminak eta bideak.

Orobat, Nafarroa ezagutzeko **funtsezko 10 ibilbide** daude; baita beste ibilbide espezifiko batzuk ere: Hemingway idazlearen ibilbidea, sorginkeriarena, karlismoarena, gaztelu eta gotorlekuena, eta estreinatu berri den paisaien ibilbidea.

Eguraldiari buruzko atal bat ere badago, erabiltzaileek hurrengo zazpi egunetan zer eguraldi egingo duen jakin dezaten; atal horretan, gainera, Nafarroako klimari buruzko azpi-atal bat dago.

Horrez gain, aplikazioan **Nola heldu eta mugitu** atala dago, Foru Komunitatera nola heldu eta heldutakoan nola mugitu jakiteko: errepideak, autobusak, trenak, hegazkinak, taxiak eta errentan hartzeko ibilgailuak.

Azkenik, Nafarroako turismo-bulego guztiei buruzko informazio erabilgarria eskaintzen duen atal bat dago.

Aplikazio honen berri emate aldera, informazioa jarriko da turismo-bulegoetan, sare ofizialarekin hitzartutako informazio turistikoko guneetan eta Foru Komunitateko turismo-establezimenduetan.

Nafarroako Turismoaren atariak jasotzen dituen bisitak

Nafarroako Turismoaren atariak, 2013ko urtarriletik abuztura, 1.275.490 bisita jaso ditu, 2012an baino %14,37 gehiago. Bisita gehienak (1.033.014, hau da, %80,9) Espainiatik egin dituzte eta gainerakoak (242.476, alegia %19,1) atzeritik.

Espainiatik egindako bisita-kopurua %12,9 igo da (2012ko datuekin alderatuta) eta bisitari gehienak hiri hauetakoak izan dira: Iruña (%25,5), Madril (%14,8), Bartzelona (%10,4), Bilbo (%6,4), Donostia (%4,3), Zaragoza (%2,98) eta Valentzia (%2,8).

Nazioarteko bisita-kopurua are gehiago handitu da, %22 hain zuzen (2012ko datuekin alderatuta), eta bisitari gehienak dira Frantziakoak (%36,5), Estatu Batuetakoak (%10,6), Italiakoak (%5,2), Erresuma Batukoak (%4,7) eta Herbeheretakoak (%3,42).

Interesgarria da, baita ere, gehien bisitatzen diren atalak zehaztea: Sanferminak, antolatu bidaia, Donejakue bidea, Erresumako ibilbideak, Pirinioak eta landa-turismoa.

Atarian sartzeko moduari dagokionez, %75,49k ordenagailua erabili du, %16,19k sakelako telefonoa eta %8,32k tableta.

Nafarroako Turismoaren ataria

Abian jarri zenetik hamar urte pasa dira, eta www.turismo.navarra.es ataria bilakatzen eta eguneratzen joan da. Gaur egun zazpi hizkuntzatan ikus daiteke. Turismoan ezinbestekoak diren baldintzei eta arintasunari moldatua dago eta turismo-sektoreak oso ondo baloratu du.

Atariaren helburu nagusia da turistak Foru Komunitatera etor daitezen konbentzitzea eta haiekin nolabaiteko lotura sortzea. Horregatik, helmuga turistikoen eta oraingo turistaren eta turista potentzialen arteko espazio gisa dago pentsatua. Hala, atarian elkarrekintza da oinarria, eta elkarrekintza hori lortzen da, batetik, ataria turismo-baliabideei buruzko Inforeyno datu-basearekin eta Navarrabooking erreserba-zentralarekin lotuta; eta, bestetik, bitarteko hauekin: Turismorako mapa interaktibo berezi batekin, Nafarroako Turismoaren aplikazio berriarekin eta buletinak gestionatzeko tresna batekin (mailchimp).

Nafarroako Turismoaren atariak komunikatzeko berezko estiloa dauka eta edukiak barne-gestioa medio antolatzen dira. Ataria garatzeko eta zaintzeko kanpoko enpresa bat dago kontratatuta, eta enpresa hori arduratzen da merkatuak eta Interneten bilakaerak ezartzen dituen joerak islatzeaz.

Web-orria online komunikatzeko tresna bat da, baina ez bakarria. Gizarte-sareen erabilera web-orriari zuzenean lotua eta Nafarroako Turismo Planaren helburuetan jasoa dago. Facebook-en Nafarroako Turismoak 5.100 jarraitzaile dauzka, eta Twitter-en 10.000 baino gehiago. Azkenik, Youtube-ko profilean 12 bideo jarri dituzte aurten, Nafarroako erakargarri turistiko garrantzitsuenen berri emateko, produktuen arabera: “Kultura-turismoa”, “Natura-turismoa/Ekoturismoa”, “Landa-turismoa”, “Gastronomia eta ardoa”, “Osasun-turismoa”, “Motor-jarduerak” eta “Turismoa etxeko animaliekin”.